

LIFE IREKIBAI: Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza.

Nolako izanen parte-hartze prozesua?

Eraiki dezagun elkarrekin ibaiaren etorkizuna

Parte-hartze aktiborako prozesuaren helburuak

Parte-hartze prozesua ireki da IREKIBAI Proiektuaz **INFORMAZIOA** emateko, eta horrela, jarraipena emanen zaio 2007tik hona Bidasoa Ibaiaren Foroarekin burututako prozesuetan egin den lanari, bai eta Europako beste proiektu batzuekin gaur eguneraino egindakoari ere. Era berean, helburua da IREKIBAI^{1*} proposatutako lan teknikoaren gainean **EZTABAIDATZEA**, eta Udalak nahiz herritarrak **INPLIKATZEA** Kantauriko ibaiak eta Natura 2000 Sarea ukitzen dituzten proiektuetan.

Nork parte har dezake?




Prozesua interesa duen ororendako dago irekia.

Parte hartzen duten pertsonak hainbat profil, kezka eta interesetakoak izatea nahi dugu:

hau da, Toki Administrazioarekin loturiko langileak, nekazaritzan (ureztatzaileen elkarteak, nekazaritza sindikatuak, kooperatibak...), industrian eta zerbitzuen sektorean diharduten langileak; edo herritar erakundeak (arrantzaleak, ekologistak, ikastetxeak, gazte eta emakume elkarteak, mendi taldeak) eta tokiko adituak.

Kontua da guztion artean ikustea zein izan daitezkeen ekarpenik egingarrienak eta desiragarrienak egungo lege eta kontzeptu esparruan.

- Inplikaturiko herrietatik datorren jendea behar dugu, ibaiari buruzko ikuspegi zabalago bat eman dezaten.
- Jarrera ezberdinak entzuteko, errespetatzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko prest dagoen jendea behar dugu, lan ildo bateratua aurkitzeko asmoz.
- Erabakiak hartzeko ardura duten agintari publikoei analisisietan eta proposamenetan laguntzeko interesa duen jendea behar dugu.




¹ Gainera, proiektuak arrainen artean eragina izan dezakeela kontuan hartuta, parte-hartze prozesuaren 2. Fasean egungo arrantza ereduaren azterketa hasiko da.

Prozesuan parte hartzeko hainbat maila

PARTE-HARTZE MAILA	NOR DIRA PARTAIDE?	ZER EGINEN DUTE?
Talde orokorra	Inskribatzen diren pertsonak eta entitateak.	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio jardunaldietan eta emaitzak aurkezteko saioetan parte hartuko dute. • Prozesu osoan informazioa jaso, eta beren kezkek Lan taldeetako kideei helaraziko dizkiete.
Lan taldea	<p>Gehienez 25 laguneko taldea (boluntarioak). 1. Informazio Jardunaldian erabakiko da nor den kide.</p> <p>Proiektuaren jarduketa eremuko jendea eta entitateak dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez aurreko eztabaida saioetan parte hartuko dute. • Saioak prestatzeko aurkeztuko den dokumentazio guztia aztertuko dute sakon.
Jarraipen Batzordea	<p>Inplikaturik dauden udalerrietako udal ordezkariak (alkateak edo eskuordetutako zinegotziak).</p> <p>Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua eta GAN.</p> <p>Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari gonbit egingen zaio.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ezarri beharreko neurriak baloratu eta erabakiko dituzte, parte-hartze prozesuaren emaitzak kontuan hartuta. Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak eta Proiektuko Zuzendaritza Batzordeak proposamenak kontuan hartuko dituzte, entitate eskudunak baitira azken erabakian. • Prozesuan hainbat saio egingen dituzte, jarraipena egiteko. • GANekin arituko dira lankidetzan, eragileak identifikatzeko eta emaitzak zabaltzeko.

Eta eskema honetan, **parte-hartze mailen** arteko harremanak ageri dira:



Prozesuaren faseak: Parte-hartze prozesua bi fasetan banatu dugu. 1. FASE hau martxoan hasi eta 2016ko ekainean bukatuko da. Eta prozesuaren 2. Fasea 2016ko irailean hasi eta 2020ko abenduan bukatuko da.

EGUTEGIA

		2. FASE														
		2016			2017. URTEA			2018			2019 URTEA			2020		
PARTE -HARTZE MAILA	NIVEL DE PARTICIPACIÓN	AÑO 2016			2017. URTEA			2018			2019 URTEA			2020		
		M	AB	M	J	3T	4T	1T	2T	3T	4T	1T	2T	3T	4T	
BILERA	REUNIÓN	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
JARRAIPEN BATZORDEA	Comisión de seguimiento	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
LAN TALDEA	Grupo de Trabajo	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
TALDE ORROKORRA	Grupo general	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
MINTEGIA	Seminario final															

www.irekibai.

Non aurkituko dugu informazio gehiago?

www.irekibai.eu



Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.



www.ganasa.es

Aita Adoain k., 219 behea,
31015 Iruñea (Nafarroa).
avarelaa@ganasa.es
Tel.: +34 848 420737